

Udako kosmogenesia



DIANA FRANCO

Garai ezberdinetan gizakion kulturek aldaketak barneratu dituzte, kulturak inguruarekin sinbiosi batean bizi dira, jakinik inguru gisa ulertzen duguna gauza asko direla: espazio fisikoa, birtuala, gizakion artean harremanak egiteko moduak (inguruan eta munduko beste gizaki eta izakiekin)... Aldaketak norabide asko izan ditzake, eta noski, datorrena gogoko ez baduzu beste zerbait eragin dezakezu.

Zenbait aldiz pasatu zait aldaketa nire baitan sentitu dudala, batzuetan ulertu izan dut nire kosmobisioa mugatuta zela, nire inguruko kulturak berak zapaldua zenbaitetan. Eta, kosmogenesia bat susmatu dut nire baitan, mundua ulertzeko eta eragiteko modu ezberdin baten jaiotza. Aldaketa hauek ez dira oso mentalak, ez ditut kontrolatzen, egun batetik bestera susmatzen ditut.

Azkenaldian Octavia Butler fikziozko idazlearekin zaletu naiz, benetan gogoko dut bere fikzioaren barnean gizakion eguneroko beldurrak eta gatazkak zelan lantzen dituen, bidegurutzean jartzen dituen pertsonak uneoro. Lilithen Leinuaren liburuan, materia bizia edozein gauza eraikitzeke lehengai eta makina bezala darabilte estralurtarrek; gizakiei esaten diete akabatu duten mundura itzuli ahal izateko genetiki eraldatu behar dutela. Estralurtar hauek, bizirik irauteko, unibertsoan zehar dagoen izakien materia genetikoaren euren materiarekin nahasten dute. Eta nahastea gauza berri bat sortzen da, ez gure munduan dugun kulturen zapalkuntzaren ideia, beste gauza bat da. Kostatzen zait halakoak ulertzea, galtzaile bat dagoen susmoa baitut beti. Baina Octaviaren ideia narrasti baten azal aldaketatik gertuago dago; bizirautea baimentzen duen aldaketa, zer edo zer atzean utzita. Gizakion munduan, lasaitasuna eta atsedena dira horrelako esperientzia bat izatera gerturatzen gaituena. Oporrak baldin badituzue, aukera hori izan dezazuela eta, bueltan, azalberrituta, irakurriko dugu elkar. ●



Panaman ere altxatu dira

AXIER LOPEZ

Ertamerikan ere errepikatzen ari da azken hilabeteetan herrialde anitzetan ikusten ari garena. Azken hiru asteotan, herrialdeko protesta sozial handienetarikoa aurrera eramaten ari dira panamarrak, manifestazio eta errepideen blokeo etengabeekin. Egoerari gainezka egin dion azken tanta erregaien gorakada geldiezina izan da. Horren ondorioz funtsezko beste produktu batzuetan ere eragin zuzena izan du, hala nola elikagaien kostuan.

Eskola publikoetako irakasle batzuek lanuzte nazionala deitu zutenean abiatu zen protestaldia. Denbora gutxian, erakunde ugari batu ziren borrokara herrialdeko hainbat tokitan. 32 puntuko eskaera zerrenda bat adostu dute: soldatak igotzea, elikagaien prezioak izoztea, osasunean, hezkuntzan eta ustelkeriaren aurkako politiketan inbertsio publikoa handitzea, ekoizpen nazionala sustatzea eta AEBen kontrolpean dauden lau base militarren ezarpena baztertzea eskatzen dute, besteak beste.

Beste herrialde batzuetan gertatu bezala, protestak lotuta daude agintarien kudeaketa politikoaren aurkako jarrera orokorrekarekin eta askoren begitara jotzen den "diru publikoaren xahuketarekin", baita azken hamarkadetakoa ustelkeria kasuekin ere.

Adibidez, Panamako historian ustelkeriagatik egindako ikerketarik handiena, 80 inputatu baino gehiagorekin, irailaren 12rako atzeratu da. Inputatuen artean Ricardo Martinelli (2009-2014) eta Juan Carlos Varela (2014-2019) presidente ohiak daude. Ekonomia eta Finantza Ministerioak familien diru-sarreraren banaketari buruz 2015ean egindako txosten baten arabera, Panamako familia aberatsenen %10ek 37,3 aldiz diru-sarrera handiagoak zituzten familia pobreenen %10ek baino.

Bost urteko agintaldirako hautatu zuten 2019an Laurentino Cortizo enpresari eskuindarra presidente. Berak Errusia eta Ukrainako gerrari egotzi dio erregaien prezioaren igoera, nahiz eta, bistan denez, arazoa askoz egiturazkoagoa den. Protestak geldiarazteko asmoz, gobernuak akordioa iragarri du igandean. Horren arabera, erregaiaren prezioa murrizteko konpromisoa hartu du 6 dolarretik 3,30era [galoi bakoitzeko].

Hala ere, protestak ez dira eten, herri mugimenduetako oinarriek asotelehenean erabaki baitute igandean adostutakoa ez onartzea, "gutxi batzuen artean" adostutako itun hori ez baitute begi onez ikusten. Bien bitartean, Ekuadorren, Sri Lankan edo Panaman gertatu dena ate joka dago Mendebaldean. ●